

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Udal Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, DONOSTIAN JABARI ETA ERABILERA PUBLIKOA OSTALARITZARAKO HARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO ARAU PROPOSAMENA aldatzeko ekimen hau aurkezten du.

### JUSTIFIKAZIOA

Alkateak 2019ko abenduko dekretua, Covid-19aren ondorioz ezarritako murrizketek irauten zuten bitartean terrazen araudia malgutzekoa, indargabetu zuela eta, urriaren 28ko Osoko Bilkuran, malgutzte horiei eusteko kontrol-mozio bat aurkeztu genuen, baina baztertu egin zen. Hori dela eta, Talde Popularrak akordio hau proposatzen du:

### AKORDIOA

1. Bidezkotzat jotzea Donostian jabari eta erabilera publikoa ostalaritzarako hartzea arautzen duen ordenantza aldatzea, hura malgutzeko eta alkateak alarma eta larrialdi sanitarioko egoeran hartu zituen ezohiko neurriak han sartzeko.
2. Horrenbestez, araudi-proposamen honen aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 115. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Donostia, 2021eko azaroaren 4a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea